



## IKUSI MAKUSI, ZER IKUSI?

- Haurren aurkako indarkeria patriarkalik ez-

Askotan esan ohi da indarkeria patriarkalak milaka aurpegi eta milaka ahots izan ditzakeela, baina oraingoan ate atzean ezkutaturik gertatu eta geratu ohi diren biolentzia-egoera lazgarrien inguruan arituko gara: umeen kontrako indarkeria patriarkalaz.

Haurren kontrako bortizkeria patriarkalak baditu dimentsio anitz: eraso fisikoak, psikologikoak, arduragabekeria fisikoa eta emozionala eta sexu-abusuak. Indarkeria aldaera anitz horien zutabeak estuki lotuta daude patriarkatuaren baitako jendarteratze-prozesuei. Txikitatik, sozializazio-prozesuan zehar, neskatoei edo mutikoei sexualitate, identitate, rol eta eredu estereotipatu hertsiaek ezartzen dizkie sistema heteropatriarkalak, betiere, jendaranean sistemaren beharrak asetzeko leku eta funtzioko ezberdinak har ditzaten. Horregatik, neskatoak printzesak, zaintzaileak, goxoak, geldoak, objektuak izateko hazten ditu; mutilak, aldiz, bizkorra, independenteak, ausartak, mugituak eta subjektuak izateko. Haurren eta nerabeen bizi-ibilbidea, sozializazio-prozesua alegia, hasieratik bortizkeria kultural eta sinbolikoak ezaugarritzen dute.

Gainera, patriarkatua oinarri duen jendarте honetan, nork(tzuk) du(te) boterearen hegemonia? Boterearen hegemonia heldua, gizona eta heterosexuala izango da. Hori dela eta, hori mantentzeko tresnarik nagusiena bortxa izango da, eta horrek, modu eta forma anitz izango ditu. Horrenbestez, indarkeriaren monopolioa gizon helduek izango dute (gehienetan senarrak eta aitak) eta hori sufritzen dutenak nagusiki, berriz, jendaranean zaurgarritasun-egoeran bizi diren era anitzetako subjektuak izango dira: emakumeak eta haurrak bereziki.

Indarkeria sexistak duen dimensio zabal honen gotorlekua patriarkatuaren oinarria den familia nuklearra da. Horren oinarriak hauek izango lirateke: heterosexuala; maskulinitatearen plazerera eta bizitzara egina; etxeko gizonak izango dute boterearen monopolioa (aita, osaba, aitona); produkzioa eta erreprodukzioaren arteko banaketa sistemikoa, etab. Familia-eredu hori eta horren gertuko sarea bera dira, gehienetan, errealitye lazgarri horien isilpeko babesleku; horren adibide adierazpen hauxe dugu: *trapu zikinak etxearen garbituko ditugu*.

Horrez gain, heteroaraua oinarri duen sistema patriarkalean sustaitzen den beste premisetako bat da: gizonek beraien gozamenerako eta onurarako nahieran erabili ditzaketeela inguratzen dituzten gorputz anitzak. Horren adibide ditugu: mota anitzetako sexu-erasoak, bortxaketak, publizitate sexista, haurren hipersexualizazioa, pronografia eta sexu-abusuak.

Sexu-gehiegikeriei dagokionean, eguneroko errealitye dira gurean; esaterako, salatzen diren sexu-abusuak kontuan hartuta, hamazazpi urtetik beherako lau neskatotik batek jasan ditu noizbait bere bizitzan, eta zazpi mutiletik batek. Hala ere, egoera horien inguruko datuen eskasia salatu ohi dute behin eta berriz gehiegikera horiek pairatu dituzten haurren eta nerabeen elkarrekin. Sexu-abusa jasan duten haurrek gehienetan bere erasotzailea ezagutzen dute: %70etan hurbileko senidea da.

Haurren aurkako indarkeria kasuetan orokorrean, batetik, erasotuaren zaurgarritasun egoera dela eta bestetik, gehienetan erasotzailea familiakoa edo ingurukoa delako, haurren hitza ez da kontuan hartzen, ez zaio sinesten. Zehazki, sexu-abusuen kasuan, salaketa gehienak ez dira epaitegietara iristen, eta ailegatzen diren horiek, trabaz betetako bide bat egin beharko diete aurre: haurrek sexu-abusa egon dela demonstratu beharko du sistema judizialaren aurrean (edozein adinekoa dela), testigua gehienetan ama izan ohi da eta amen hitza zalantzan jartzen da sistema judizialaren egitura patriarkala dela-eta. Batetik, amak sexu-abusuak jasan dituzten bere seme-alabak manipulatu dituela argudiatuta, eta epaitegian gezurra esan duela iritzita, seme-

alaben zaintza kentzerainoko prozesuak daudelako, gaur gaurkoz. Bestetik, epaitegietan, kasu horietan dagoen geldotasuna kontuan hartuta, auziak aurrera jarrai dezan aparteko abokatu bat behar izaten delako. Hori horrela izanda, emakume askok ezin izaten dute prozesuarekin segi, baliabide ekonomikoen faltan. Azken batean, epaitegietara iristea lortzen duten salaketen bide judizialak bide motza izan ohi du, kasu gehienak artxibatu egiten baitira.

Bestalde, amaitze aldera, ezin ahantzi genitzake umeek euren amaren kontrako indarkeriaren ondorioak pairatzen dituztela zuzenean, bortxa-egoeraren edo dinamikaren parte direlako. Euren etxeetan indarkeria-egoerak bizi dituzten umeak horren zuzeneko jasotzaileak dira, nahiz eta legeak horrela ez jaso. Horren muturreko adibide izan dugu aurtengoan Gasteizen, zeinak, gizon batek bere bikotekidearen alaba, Alicia, erail zuen balkoitik botata, eta Eusko Jaurlaritzak berak ere ez duen hori indarkeria sexista gisa izendatu eta errekonozitu. Horrez gain, epaiketekin jarraituz, epaitegietara iristen diren banatze-kasuetan, zaintza partekatuaren legea onartuz geroztik, ikusi liteke indarkeria sexista egoerak izan diren bikoteen kasuan, adibidez, ez direla kontuan hartzen, eta erasotzaileei bisita-erregimena mantentzen zaiela kasu gehienetan.

*Ikusi makusi, zer ikusten da?* Erpin asko dituen poliedroa egoera gordin eta lazgarriez gainezka dagoela. Erpin asko dituen egoera gordin eta lazgarria ikusten da. Horren aurrean, komenigarria dela deritzogu gatazka honi irtenbideak ematen hastea. Horretarako, lehenik eta behin, egoera horietan sortzen diren isiltasun-hitzarmenak hausten hastea garrantzitsua dela deritzogu. Sufrimenduz betetako bizi-hastapena izan duten subjektu zaugarriak ikusgarri egin behar ditugu; jendarte-heldu gisa dugun arduraren jabe izan behar dugu; horiei aurre egiteko epaitegietako paper zimelduei bide ematea exijitzen diegu agintari politiko eta judizialei; txikitatik neskatoekin autodefentsa feministaren beharrizana mahai-gaineratzen dugu eta indarkeria egoera anitzetatik askatzeko, nahitaezkoa izango dugu hezkuntza eredu hezkidetzaile eta feministaren baten aldeko jardunarekin jarraitza.

Erasorik ez, erantzunik gabe!

Kalean izango gara aurtengoan ere!

**EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA  
2016ko azaroan**



## VEO, VEO... ¿QUÉ VES? - No a la violencia patriarcal contra la infancia -

Se suele decir que la violencia patriarcal tiene miles de caras y de voces, y en este caso, nos referiremos a violencia patriarcal contra la infancia, una durísima realidad que se esconde detrás de muchas puertas.

La violencia ejercida contra la infancia tiene varias dimensiones: desde las agresiones físicas a las psicológicas, la despreocupación física o emocional, e incluso abusos y agresiones sexuales. Los pilares de esas variables de violencia están estrechamente ligados a los procesos sociales del patriarcado. En todos los procesos de socialización que ocurren desde el nacimiento, el sistema heteropatriarcal establece para los niños y las niñas sexualidades, identidades, roles y modelos estereotipados muy cerrados y divididos; estas categorías responden a necesidades de espacio y funciones diferenciadas que necesita el sistema de cada sociedad. El sistema educa a las niñas para que sean princesas, cuidadoras, dulces, paradas, positivas y como no, objetos; en cambio, a los niños se les inculca que sean inteligentes, independientes, atrevidos, movidos y en definitiva, sujetos. El proceso de socialización, está estructurado sobre la base de violencia cultural y simbólica propia del patriarcado.

En una sociedad patriarcal como ésta, ¿quién(es) tiene(n) la hegemonía del poder? La hegemonía del poder lo ostenta un hombre, adulto y heterosexual. Para poder mantener ese poder la herramienta principal que utilizará será la violencia, en sus diversos modos y formas. El monopolio de la violencia por lo tanto, también lo tendrán los hombres de más edad (normalmente, maridos, padres, tíos y abuelos), y los que sufren esa violencia, serán esos sujetos que viven situaciones de gran vulnerabilidad: mujeres y menores.

La familia nuclear que es la base del patriarcado, es el bastión donde se suceden estas violencias sexistas en todas sus dimensiones. Las principales características de este modelo son que es heterosexual; hecho a medida del placer y la vida masculinas; el hombre de la casa tendrá el monopolio del poder (padre, tío, abuelo); hay una división sistemática de los trabajos de producción y reproducción, etc. Este modelo de familia y las redes del entorno, suelen ser en la mayoría de los casos, refugio de estas terribles realidades silenciadas. El refrán “los trapos sucios se limpian en casa” es ejemplo de ello.

Otra de las premisas en donde se enraiza el sistema patriarcal heteronormativo es que los hombres pueden utilizar a su antojo y disfrute los diversos cuerpos que les rodean. Las agresiones sexuales, las violaciones, la publicidad sexista, la hipersexualización de la infancia, la pornografía y los abusos sexuales, entre otros, son ejemplo de ello.

Respecto a los abusos sexuales, son el terrible pan de cada día. Teniendo en cuenta las denuncias de menores de 17 años, una de cada cuatro chicas ha sufrido alguna vez un abuso, mientras que en el caso de los chicos, es uno de cada siete. Sin embargo, las asociaciones que trabajan por los derechos de la infancia denuncian la falta de datos e investigaciones al respecto. La mayoría de las personas agredidas conocen al agresor; en el 70% de los casos, suele ser un familiar.

La vulnerabilidad de los y las menores por un lado, y que en muchos casos el agresor sea del entorno cercano, hace que no se tomen en cuenta las advertencias de estos. En el caso de los abusos sexuales, la mayoría de las denuncias no llega a los juzgados, y los que sí lo hacen, se

enfretan a un camino lleno de obstáculos. Por un lado, la niña o el niño tendrá que demostrar ante el sistema judicial haber sido agredido; en este tipo de casos casi siempre son las madres las testigos principales, y como la estructura del sistema judicial es patriarcal, muchas veces suele dudarse de su palabra, argumentando que manipulan a dichos menores en interés propio. Por otro lado, la lentitud del sistema judicial hace que se necesiten juristas para seguir con el proceso, y en muchos casos, las mujeres dejan de hacerlo por falta de recursos económicos. En el caso de que las denuncias lleguen a los juzgados, el proceso judicial suele ser corto, ya que se archivan la mayoría de los casos.

No debemos olvidar que las y los menores también sufren la violencia que se ejerce sobre sus madres, al ser parte de las agresiones y las dinámicas que se suceden en estas parejas. A pesar de que la ley no lo estima como tal, los y las niñas son víctimas directas de la violencia que se ejerce dentro de las casas. Este mismo año, un hombre asesinó a Alicia, la hija de su pareja, en Gasteiz, tirándola del balcón, y el Gobierno Vasco ni lo ha reconocido, ni nombrado, como caso de violencia sexista. Por otro lado, en el caso de los juicios de separación, desde que se puso la ley de custodia compartida, no se suele tener en cuenta si ha habido violencia sexista en la pareja, y en muchos casos, a los agresores se les concede régimen de visitas sin ningún problema.

Veo veo, ¿qué ves? Un poliedro que tiene muchísimas puntas, repleto de situaciones terribles y atroces. Frente a ello, es necesario comenzar a buscar soluciones para estas situaciones y este conflicto. Consideramos importante romper los pactos de silencio que se crean en estos casos. Debemos visibilizar a esas personas vulnerables que han tenido un comienzo de vida tan duro; como sociedad comprometida, debemos ser conscientes de la responsabilidad que tenemos; es necesario exigir a los poderes políticos y judiciales que encaucen los papeles apilados de los juzgados; queremos poner encima de la mesa la necesidad de trabajar la autodefensa feminista desde la infancia; liberarnos de las diversas violencias que nos atraviesan, y garantizar y seguir trabajando por un modelo coeducativo y feminista.

Este año, también saldremos a la calle...

¡Ninguna agresión sin respuesta!

**EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA**  
Noviembre del 2016